

IL AZALPEN PROBA • <i>Marcovaldo edo Urtaroak hirian</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Azenarioa amaituta zegoen ia, Marcovaldok besoan hartu zuen animaliatxo eta jaten emateko beste zerbaiten bila hasi zen inguruan. Sendagilearen idazmahaian zegoen geranio landare txiki batera hurbildu zion muturra, baina animaliak gustukoa ez zuela erakutsi zuen. Sartzen ari zen sendagilearen oinotsa aditu zuen Marcovaldok orduantxe: nola azalduko zion zergatik zeukan untxia besoan? Laneko jaka zeukan jantzia, gerri aldean lotuta. Untxia azkar sartu barruan, botoiak lotu, eta doktoreak sabeleko handidura saltokari hura ikus ez ziezaion, atzera pasarazi zuen, bizkarrera. Untxia, ikaratuta, geldirik egon zen. Marcovaldok bere paperak hartu eta bularrera itzuli zuen untxia, buelta eman eta irten behar zuelako. Horrela, untxia jakan ezkutaturik zeramala, ospitalea utzi eta lanera abiatu zen.

Baina hiri bertikal honetan, hutsarte guztiak bete eta porlanezko bloke guztiek beste porlanezko bloke batzuekin elkartzera jotzen duten hiri estutu honetan, nolabaiteko hiri-orde bat irekitzen da, negatiboz dagoen hiri bat, horma biren arteko tarte hutsez eta, etxeen atzekaldean artean, hirigintza arauak ezartzen dituzten eraikuntzen arteko gutxienezko neurriez osatua; hiri horrek pasabideak ditu, etxe barruko patio itxiak, airea zaharberritzeko hodiak, autoentzako sarbideak, etxarteak eta sotoetarako sarrerak, kare eta galipotezko planeta bateko kanal lehorren sare bat osatuz bezala; bada, sare horrexetatik ibiltzen da oraindik, hornei pega-pega eginda, katuen herri zaharra.

IL AZALPEN PROBA • <i>Marcovaldo edo Urtaroak hirian</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Marcovaldok egunkari paperean bilduta eramaten zuen jatekoa egunero; eserlekuan jezarrita, papera kendu eta egunkari zati lardaskatu hura Rizieri jaunari ematen zion, honek, pazientziari eutsi ezinik, eskua luzatu eta «Ikustagun ze berri dagoen» esaten ziolarik; eta beti jakinmin berberaz irakurtzen zuen, baita bi urte lehenagokoa izanda ere.

Hala, egun batez erreuma oinazeak erleen pozoinaz sendatzeko moduari buruzko artikulu bat aurkitu zuen.

–Eztiaz izango da –esan zuen Marcovaldok, beti baikor joera bait zuen.

–Ez –erantzun zuen Rizierik–, pozoinaz, halaxe dio hemen, eztenek duten pozoinaz.

.....

Zirrarak ez zion galerazi ur azal kizkurraren azpikoa ikustea. Eta bere setak saria izan zuen: hots motel bat, arrain hegal baten zirkin nahastu ezina ur azal-azalean, eta gero beste bat, eta beste bat; egundokoa, begiek ez sinesteko modukoa!; ibai osoko arrainak harrapatzeko lekua zen hura, arrantzalearen paradisua, berak baino ezagutzen ez zuena, beharbada. Itzultzean –iluntzen ari zen– zumarren azalean koskak egiten ari eta halako toki batzuetan harri pilak jartzen geratu zen, bidea berriaz aurkitu ahal izateko.

Arrantzurako tresnak ezkutatzea baino ez zitzaion falta orain.

IL AZALPEN PROBA • <i>Marcovaldo edo Urtaoak hirian</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Arratsalde hartan, ikusi zuen filmeko istorioa Indiako oihanetan gertatzen zen: sasitza zingiratsutik lurrin hodeiak altxatzen ziren, eta sugeek lianetatik igo eta oihanak irentsita tenplu zaharretako estatuetatik gora egiten zuten.

Zinematik irtetean, begiak ireki zituen kalean, berriz itxi, eta berriz ireki: ez zuen ezer ikusten. Ezertxo ere ez. Ezta sudurretik harrabetera ere.

Orri horiek luze eta estuak izanik, batzuk buzoi zuloetatik kanpora irtenda agertzen ziren; beste batzuk lurrean zeuden pilaturik, apurtxo bat bakarrik hondatuta, etxeko bizilagunetako batzuek buzoia ireki eta barrua gora-goraino betetzen zuten propaganda paper guztiak bota ohi zituztelako berehala. Filipetto, Pietruccio eta Michelino, batzuk behetik jaso, beste batzuk zirrikituetatik atera, eta beste batzuk burdin-hari batez harrapatuz, «Eguzkizuri» txartel horien bilduma egiten hasi ziren.

–Nik zeuzkeat gehien!

–Ez, konta itzak! Apostu egiten diat baietz nik gehiago eduki!